

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. APARTAMENTU TURISTIKOAK ETA OROTARAKOAK. 2020KO ABENDUA

2020. urtearen amaieran, Euskal AEko hotelek, landetxeek eta apartamentu turistikoek 4 milioi gualdi gutxiago baino gehiago izan dituzte 2019. urtearen aldean

Euskal AEn 2020ko abenduko egun guztietan itxitako turismo-establezimenduen kopurua guztizkoaren % 36 ingurukoa izan da

2020. urtean, inkestan jasotako establezimendu turistiko hartzaileen (hotel-establezimenduak, landetxeak eta apartamentu turistikoak) mugimenduak, bai sarrerarenak bai gualdienak, agerian uzten du COVID19ak eragindako krisiari aurre egiteko hartutako murrizketek eragin zuzena izan dutela sektore turistikoan. Hala, 2020. urtea 1.351.804 sarrerarekin eta 2.820.063 gualdirekin itxi da, hau da, 2019. urtearekin alderatuta % 60,7ko eta % 59,8ko jaitsiera izan da, hurrenez hurren.

Gipuzkoan % 56,6 jaitsi dira sarrerak urte osoan eta gualdiak % 57,9; Araban % 58,7 eta % 54,6; azkenik, Bizkaian % 64,8 eta % 63,2 jaitsi dira, hurrenez hurren, 2020an, aurreko urtearen aldean.

Bizilekuaren arabera analisiak agerian uzten du ezen beherakadarik handienak atzerriko jatorriko sarreretan eta gualdietan izan direla, % 73,3ko eta % 74,0ko jaitsierekin, hurrenez hurren. Atzerriko jatorriko bisitarien beherakada nabarmenagoa izan da Bizkaian.

Sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta betetze-mailak Euskal AEko hotel, landa ostatu eta apartamentu turistikoetan. 2020

	Sarrerak		Gualdiak		Batez besteko egonaldia		Betetze-mailak(%)			
							plazak		gela edo apartamentuak	
	2020	2020/2019 (%)	2020	2020/2019 (%)	2020	2019	2020	p.p.*	2020	p.p.*
EUSKAL AE	1.351.804	-60,7	2.820.063	-59,8	2,09	2,04	30,1	-22,2	39,4	-25,1
Estatukoak	975.372	-52,0	2.073.721	-50,0	2,13	2,04	-	-	-	-
Atzerritarrak	376.431	-73,3	746.342	-74,0	1,98	2,04	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	190.314	-58,7	430.920	-54,6	2,26	2,06	26,6	-16,1	39,0	-18,6
Estatukoak	155.042	-53,6	357.126	-48,9	2,30	2,09	-	-	-	-
Atzerritarrak	35.272	-72,0	73.794	-70,4	2,09	1,98	-	-	-	-
BIZKAIA	568.588	-64,8	1.176.977	-63,2	2,07	1,98	28,8	-24,7	38,5	-27,5
Estatukoak	424.929	-55,7	880.964	-53,2	2,07	1,96	-	-	-	-
Atzerritarrak	143.658	-78,1	296.012	-77,5	2,06	2,00	-	-	-	-
GIPUZKOA	592.902	-56,6	1.212.166	-57,9	2,04	2,11	33,0	-22,0	40,6	-24,8
Estatukoak	395.401	-46,4	835.631	-46,7	2,11	2,13	-	-	-	-
Atzerritarrak	197.501	-68,6	376.535	-71,3	1,91	2,09	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urtearekiko ehuneko-puntu aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

2020an, urteko batez besteko egonaldia 2,09 egunekoa izan da, 2019an erregistratutakoa baino handixeagoa, orduan 2,04 egunekoa izan baitzen. Lurralde historikoei dagokienez, Araban lortutako 2,26 egunak nabarmendu behar dira. Bizkaia eta Gipuzkoa Euskal AEko batezbestekoaren antzeko balioetan geratu dira: 2,07 eta 2,04 egun, hurrenez hurren.

Eskaintako plazen arabera okupazio-mailak ehuneko 22,2 puntu egin du behera 2019. urtearekin alderatuta, eta 2020an % 30,1 izan da. Logelen/apartamentuen arabera okupazio-maila % 39,4koa izan da, aurreko urtearen aldean ehuneko 25,1 puntu jaitsi ondoren.

Itxita mantendu diren ostatu turistikoak (%). COVID19 aldia

	EUSKAL A.E.		ARABA/ÁLAVA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	2020	2019	2020	2019	2020	2019	2020	2019
Abendua	35,8	6,1	29,4	11,6	36,5	14,8	37,6	12,8
Azaroa	34,0	11,5	29,4	7,5	34,2	13,6	35,4	11,5
Urria *	18,8	7,7	20,6	6,6	19,4	7,4	17,8	8,3
Iraila	15,1	6,2	17,7	7,6	16,0	6,2	13,5	5,6
Abuztua	14,7	6,3	17,2	7,1	14,9	5,7	13,6	6,4
Uztaila	17,7	6,4	20,7	7,1	18,3	5,7	16,1	6,7
Ekaina	36,4	7,9	36,0	7,6	35,7	7,5	37,0	8,2
Maiatza	65,0	8,7	69,0	8,6	62,5	7,8	65,2	9,4
Apirila	90,5	8,0	92,6	9,1	87,8	6,5	91,6	8,6
Martxoa	17,8	13,0	15,8	11,7	18,2	11,5	18,2	14,5

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

* Zuzendutako datuak

2020ko hilabeteetan guztiz itxitako establezimenduen kopuruaren bilakaerak agerian uzten du ezen, apirilean ia guztiz itxi ondoren eta, neurri txikiagoan, maiatzean, joera-aldaketa txiki bat gertatu dela, 2020ko abuztuan itxitako establezimenduen % 14,7ra iritsi arte. Hortik aurrera, mugikortasun- eta taldekatze-murrizketen ondorioz, establezimenduen eskaintzak behera egin du hilez hil, eta urtea amaitu da itxitako establezimendu turistiko hartzaileen % 35,8rekin abenduan zehar.

Sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta betetze-mailak Euskal AEko hotel, landa ostatu eta apartamentu turistikoetan. 2020ko Abendua

	Sarrerak		Gualdiak		Batez besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazaka		gela/apartamentuka	
	12/2020	m/m-12 (%)	12/2020	m/m-12 (%)	12/2020	12/2019	12/2020	p.p.*	12/2020	p.p.*
EUSKAL AE	59.720	-73,6	118.691	-72,5	1,99	1,91	14,2	-26,0	20,8	-28,3
Estatukoak	49.204	-69,8	97.167	-69,1	1,97	1,93	-	-	-	-
Atzeritarrak	10.515	-83,3	21.524	-81,7	2,05	1,87	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	9.016	-72,2	22.885	-65,0	2,54	2,02	15,3	-20,3	25,3	-22,3
Estatukoak	7.274	-73,7	18.938	-66,2	2,60	2,02	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.742	-63,3	3.947	-58,4	2,27	2,00	-	-	-	-
BIZKAIA	29.710	-73,4	54.261	-73,9	1,83	1,86	14,5	-27,5	20,5	-30,5
Estatukoak	26.466	-67,6	46.892	-68,9	1,77	1,84	-	-	-	-
Atzeritarrak	3.244	-89,1	7.369	-87,1	2,27	1,92	-	-	-	-
GIPUZKOA	20.994	-74,5	41.545	-73,9	1,98	1,94	13,3	-26,7	19,2	-28,2
Estatukoak	15.464	-71,2	31.337	-70,9	2,03	2,00	-	-	-	-
Atzeritarrak	5.529	-80,5	10.208	-80,2	1,85	1,81	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urtearekiko ehuneko-puntu aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta
2020KO ABENDUA

2020ko abenduan, aurreko urteko hil beraren aldean (2019ko abendua), jaitsierak % 73,6 izan dira sarreretan eta % 72,5 gualdietan. Lurraldeei dagokienez, jaitsiera-balioak antzekoak dira sarreraren kasuan, non horietan guztietan % 70etik gorakoak baitira. Gualdiek horrela egin dute behera: % 65,0 Araban eta % 73,9 Bizkaian zein Gipuzkoan. Bizkaia da lurraldea non izan duen eragin handiena atzerriko jatorriko sarreraren eta gualdien jaitsierak, % 89,1 eta % 87,1 jaitsi baitira, hurrenez hurren, 2019ko abenduarekin alderatuta.

2020ko abenduko batez besteko egonaldia 2019ko abendukoa baino handixeagoa izan da: 1,99 egun. Plazen arabera okupazio-maila % 14,2 izan da Euskal AE osoan, 2019ko abenduarekin alderatuta ehuneko 26 puntu jaitsi delarik. Logelen/apartamentuen arabera % 20,8koa da, urte batetik bestera ehuneko 28,3 puntuko jaitsiera izan ondoren.

Apartamentu turistikoak

Apartamentu turistikoen kasuan, **2020ko urteko balantzeak** erakusten du jaitsiera bat pixka bat txikiagoa inkestan jasotako establezimendu turistiko hartzaileen multzoak (hotel eta pentsioak, landetxeak eta apartamentu turistikoak) erakutsitakoa baino. Urtean zehar izan diren 45.520 sarrerak eta 204.966 gualdiak % 49,4ko eta % 36,9ko jaitsierak izan dira, hurrenez hurren. Aurreko urtearen aldean jaitsierarik txikiena Araban izan da, % 39,5 sarreretan eta % 28,3 gualdietan.

Sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta betetze-mailak Euskal AEko apartamentu turistikoetan. 2020

	Sarrerak		Gualdiak		Batez besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
	2020	2020/2019 (%)	2020	2020/2019 (%)	2020	2019	plazaka		apartamentuka	
							2020	p.p.*	2020	p.p.*
EUSKAL AE	45.520	-49,4	204.966	-36,9	4,50	3,61	22,5	-10,1	48,0	-15,7
Estatukoak	37.168	-38,3	161.408	-26,4	4,34	3,64	-	-	-	-
Atzeritarrak	8.351	-71,9	43.558	-58,7	5,22	3,55	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	6.898	-39,5	62.256	-28,3	9,03	7,62	20,9	-4,7	55,3	-11,7
Estatukoak	6.277	-36,5	52.506	-21,6	8,36	6,77	-	-	-	-
Atzeritarrak	621	-58,9	9.750	-51,0	15,70	13,17	-	-	-	-
BIZKAIA	22.706	-50,6	73.541	-41,0	3,24	2,71	21,9	-15,1	43,6	-18,8
Estatukoak	18.945	-39,0	57.063	-31,3	3,01	2,67	-	-	-	-
Atzeritarrak	3.760	-74,7	16.477	-60,4	4,38	2,80	-	-	-	-
GIPUZKOA	15.916	-51,2	69.169	-38,9	4,35	3,47	25,1	-10,6	46,0	-15,5
Estatukoak	11.946	-38,2	51.839	-25,1	4,34	3,58	-	-	-	-
Atzeritarrak	3.970	-70,2	17.330	-60,5	4,37	3,30	-	-	-	-

p.p.* = aurreko urtearekiko ehuneko-puntu aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

2020. urtean, Euskal AE osoan, batez besteko egonaldia 4,5 egunekoa izan da, 2019koa (3,61 egun) baino handiagoa.

Plazen arabera okupazio-mailei dagokienez, portzentajeazko 10,1 puntuko jaitsiera izan da 2019. urtearekin alderatuta, eta % 22,5etan kokatu da Euskal AE osorako. Apartamentuen arabera okupazio-maila % 48,0ra iritsi da, 2019. urtearekin alderatuta ehuneko 15,7 puntu jaitsi ondoren.

2020KO ABENDUA

Urteko azken hila, **2020ko abendua**, 2.223 sarrera eta 16.353 gualdirekin itxi dira Euskal AEko apartamentu turistikoen guztizkoan. Zifra horiek kontuan hartuta, 2019ko abenduaren aldean % 65,0 jaitsi dira sarrerak eta % 26,0 gualdiak.

Lurraldeen arabera, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan sarrerak % 64,9, % 61,1 eta % 71,1 jaitsi dira, hurrenez hurren. 2019ko abenduaren aldean, gualdien urtetik urterako jaitsierak ez dira homogeneousak izan: % 23,4 Araban, % 49,3 Bizkaian eta % 1,9 Gipuzkoan.

Sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta betetze-mailak Euskal AEko apartamentu turistikoetan. 2020ko Abendua

	Sarrerak		Gualdiak		Batez besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
	2020/12	m/m-12 (%)	2020/12	m/m-12 (%)	2020/12	2019/12	plazaka		apartamentuka	
							2020/12	p.p.*	2020/12	p.p.*
EUSKAL AE	2.223	-65,0	16.353	-26,0	7,36	3,48	17,2	-9,5	39,0	-14,3
Estatukoak	1.979	-60,4	13.326	-22,3	6,73	3,43	-	-	-	-
Atzeritarrak	243	-82,0	3.027	-38,9	12,44	3,67	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	407	-64,9	5.229	-23,4	12,85	5,88	18,9	-4,2	53,5	-4,3
Estatukoak	380	-65,2	4.360	-25,4	11,47	5,35	-	-	-	-
Atzeritarrak	27	-60,5	869	-12,0	31,00	14,44	-	-	-	-
BIZKAIA	1.229	-61,1	4.130	-49,3	3,36	2,58	12,0	-18,8	26,2	-23,0
Estatukoak	1.101	-56,6	3.380	-45,7	3,07	2,45	-	-	-	-
Atzeritarrak	128	-79,4	750	-61,0	5,86	3,09	-	-	-	-
GIPUZKOA	587	-71,1	6.994	-1,9	11,92	3,50	21,2	-5,3	39,4	-12,9
Estatukoak	498	-63,7	5.586	9,8	11,21	3,70	-	-	-	-
Atzeritarrak	88	-86,6	1.408	-31,1	15,94	3,09	-	-	-	-

p.p.* = aurreko urtearekiko ehuneko-puntu aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

2020ko abenduan, batez besteko egonaldiaren balioak aurreko urteko hil berean izanikoak baino handiagoak izan dira (7,36 egun 2020ko abenduan eta 3,48 egun 2019koan), oroz gain Araban eta Gipuzkoan.

Okupazio-mailak, ordea, nabarmen jaitsi dira 2020ko abenduan. Plazen arabera kalkulaturakoaren kasuan, portzentajezko 9,5 puntu jaitsi da, eta % 17,2tan kokatu, eta apartamentuen arabera kalkulaturakoaren kasuan, % 39,0ra iritsi den arren, portzentajezko 14,3 puntuko jaitsiera da hori 2019ko abenduarekin alderatuta.

Oharra. Eustatek eskerrak eman nahi dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei, aparteko zirkunstantziak gorabehera eginiko ahaleginagatik. Haiei esker, COVID19ari aurre egiteko hartutako neurriek sektorean izan dituzten ondorioak kuantifikatzeko aukera ematen duen informazio hau zabaldu ahal izan da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: Tlf.: 945 01 75 62